



Nabulusen, martiri izat

Ez da berdina Dublinen jaio, Bogotan, edo Malin. Edo jaio bestela Palestinako Nabulusen, ausartzen bazara. Nabulusen erori dena mundura, mutikoa bada, hiltzera kondenatua dago. "Denak gaude hiltzera kondenatuak", esango didazu. Baina erantzungo dizut ez dela berdina Malin hil, Bogotan hil, edo hil Dublinen. Eta Nabulusen, tiroz eta misilez hiltzen dituztela hogeit urteko mutikoak gauero.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Txomin Txueka



PHOTO © TXOMIN TXURKA

Palestinako taupadak •

duzu? Ikusten dituzu nire bi eskutako hatz hauek? Bat, bi, hiru, lau, bost, sei... ba hainbeste egun! Honi etorkizuna esatea ere... Hitz laburragorik ez al du inork? Ez digute ahoskatzeko astirik ere emango! Beraz, zertarako segituko dugu eskolan? Badakigu eta laster hilko gaituztela”.

Aminen lagun batek egindako galderak dira, eta beren baitarik erantzuten dute. Aminek ezin izan zien galderei erantzun, gu iritsi baino hamar egun lehenago hil zuten laurhun soldadu eta bi gerra hegazkinek. Hogei urteko mutikoa. Azkeneko hatzera iritsi zen apirilaren 22 gauean. Baina aurreko lau urteak pasa zituen, israeldarrek esku bat lapurtu ziotenetik, etorkizuna bost egunetan kontatzen.

Ederra da ba Nabulus

Hain ederra ere. Bere alde zaharra, herritxo bat hiriaren erdi-erdian; urre saltzaileak pertsianak oxidatuta, eta laborarien fruitu freskozko piramideak, eta gizonezkoak eserita argilaren ke tartean hitzak kolokatuz. Kale erditik, haur txikiak amari eskutik helduta, atzeraka begira, gaua ba ote datorren. Baina ez dator oraindik, eta jendeak promenatzen segituko du, soseguzko pausoen, martirien argazkiz jantzitako hormen artean. Ederra da Nabulus eguzkipean. Baina ilargia ateratzen denean, kalean, martirien afixaz bakarrik gelditzen dira, fusilak tente, isiltasuna zelatatuz. Eta pendulugilearen dendan hamabiak joko dutenean, soldaduen itzalak esnatuko dira armaz kargaturik, kale kantoietatik alde zahar osoa tiroka desafiaturik. Etxe batera sartuko dira, inoren bila. Haur txikia esnatuko da negarrez, eta amak ez du lorik egingo gau osoan. Eta alde egingo dute, sartzerako ongi zekiten bezala, inortxo ere aurkitu gabe. Baina beldurra zabaldua gelditu da “terrorismoaren sehaskan”.

“Hemengo haurrek ez dute haurtzarorik izaten –bota du zigarreta Aminen lagunak–. Tiro hotsak entzunez esnatzen dira gauean, eta goizean, *check-point*ak pasa behar dituzte eskolara bidean. Eta soldaduek nahi ez badute haurrak ez dira eskolara joango. Ez da harriztekoa norbaitek harri bat botatzen baldin badie. Tiroz erantzuten dute. Eta bat baino gehiago dira eskolara bidean hildako haurrak”. Aminen anaia txikiak entzuten ditu hitz horiek, gure ondoan eserita. Bost urte baino ez ditu, eta plastikozko pistola bat du eskuetan. “Ikusten duzu? Haurrak jolastu egin nahi izaten du, eta hemen ez dute beste jostailurik, plastikozko armekin ibiltzen dira txikitatik. Eta gero, hamasei urterekin, benetako pistola batekin jolastu nahiko du”. Eta hemezortzi urterekin, umetan egin izan ezin zuena, gordeketan jolasten hasi beharko du gauean.

“Gaueko gudariak” dira, milizia txikiak, eta miliziano txikiagoak; armamendua hutsa. Baina ausardiaz beteak. Itxaropen kaleitsu bat denean bizitza, ez dago aurrera egin beste biderik, eta alde zaharreko kalerik estuenetan begiak itxita

• ASTERO GAIA •

eko jaio zen

MENDI HARRIZKO SEHASKA BAT DA Nabulus. Eta sehaskan itxita bizi den haurrak, zer egingo du ba, ez bada harriak hartu eta harriak bota. Harriak bota, eta harriak hartu, gauean amets egiten uzten ez dioten gaiztoen kontra. Beldurrez jaiotzen dira haur txikiak Nabulusen, handitu, eta beldurrik gabe hiltzeko.

“Eskolan segitzeko esaten didazu? Baina zertarako? Etorkizunean pentsatzeko? Zer etorkizun? Gure etorkizunak zenbat egin dituela uste

Mahmoud Amine Labada eta Raiqa M'Hamed Eshaieb, martiriaren aita eta ama

“Inork ez du ezer sentitzen gugatik”



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Aminen aita eta ama Nabuluseko alde zaharrean bizi dira, martirien plazan. Sei seme alaba hazi dituzte, lau mutiko eta bi neska, eta orain bost baino ez zaizkie gelditzen.

Zuek gazte zinetenean ere Nabulus beldurrez bizi zen?

AITA: Orain dela hogeitaz hamar urte baino gehiago, lehen Intifada hasi baino lehen, soldadu israeldarrak egunean zehar alde zaha-

ibiltzeko gai dira. Eta fusilak bista zorroztua izaten du desfile militarra nondik datorren atzemateko. “Eta zer egiten dute bala batzuk dozena bat karro militarren aurka?” galdera inozoa izan da. “Ezer ere ez. Badakigu hilko gaituztela. Borroka buruz burukoa izaten da, eta pistola bat baino ez dugu karro handien eta F16 hegazkinen kontra. Zer nahi duzu egitea? Baina gure burua babestu behintzat, eta gure herria, ez dezatela pentsatu etxean dabilzanik. Horregatik ateratzen gara, nahiz eta jakin hilko gaituztela. Hori badakigu aspalditik, ezin diogu alde egin”. Ez dago biderik ezkerrean, ez dago eskuinean, ez dago atzera ere, aterabide guztiak *check point*ez itxita daude. Aurrera egitea baino ez da gelditzen, zu ez bazoaz beraiek etorriko zaizkizu bila. Eta azken batean, hiltzea ere, ihes egiteko beste modu bat da.

Ezkerreko irudian, Amine Labada hil zuten etxeko gela. Eskuinekoan, Nabuluseko meskita.

rrera sartzen ziren, eta tiroak entzuten ziren, zauritutako asko izaten zen. Baina gaueroko eraso militar hauek, batez ere, bigarren Intifada eta gero hasi ziren. Orduan hasi zen egoera gordintzen.

Nabulusen jaiotzen den haurra itzal horrekin bizitzera kondenatua dago?

AITA: Nabulus osoan ez da egongo haur bat okupazio indarrek hunkitu ez dutena, edo familia bat martiri bat edo preso bat hurbilean ez duena. Eskolara bidean doazen haurrek ere *check point*ak pasa behar izaten dituzte, eta batzutan, soldaduek eraso egiten diete. Horixe da Nabuluseko haurra izatearen baldintza.

AMA: Agian ez da egongo martiri bat etxe guztietan, baina okupazioak etxe guztietara zabaltzen du mina, ez da bat bera ere salbatzen.

Eta Amine nolako mutikoa zen?

AITA: Txiki-txikia zenetik armada herrian sartzen zen bakoitzean sutan jartzen zen, erotu egiten zen, zerbait egin nahi izaten zuen. Bazekien soldaduak etxeak eraisten eta jendea hiltzen ariko zirela, ezin zuen jasan. Eta mutil kozkorra denetik atera da aurre egitera, harriak botatzera, edo ahal zuen bezala. Oso ausarta zen. Baina bestalde, beldur zen gurasooi zerbait gertatuko ote zitzaigun.

Heriok telefonoz deitzen du

Habibi hitz samurra da, goxotasuna darion hotsa, lagun hurbilenekeari esaten zaio. Eta Nabuluseko soldadu buruak telefonoz deitzen die gazte palestinar bilatuenei: *bi habibi!* *Hi* gazteak ere. Eta inor konturatu gabe, mugikorrak salatu du mutikoa. Orain soldadu buruak badaki zein metro koadrotara zuzendu behar duen misila. Teknologiak ez du hutsik egiten. Baina logikak batzutan bai, eta operazio militarren buruak ez du sekula ulertuko zergatik deitu zion Aminek bere zenbakira hil baino egun batzuk lehenago, baldin bazekien bere burua arriskuan jartzen ari zela. Beldurra sekula ezagutu ez duenak ezin baitu jakin beldurrik ez duzula erakustek zenbat garrantzia duen.

—*Allo!*—ezjakinararena egin zuen hasieran militarrek.



PHOTO © TXOMIN TXUEKA




PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Gurasoei ere erasotzen diete soldaduak?

AMA: Ni dagoeneko bost aldiz atxilotu naute, bost aldiz eraman naute nire etxetik, eta ez pentsa soldaduak oso goxoak direnik tratuan. Nahiz eta emakumea izan, eta adinekoa, gazteak tratatzen dituzten bezala tratatu naute, begiak estali izan dizkirate, oso gogor galdezkatu naute.

AITA: Gure etxera sartzen direnean, eta gu etxetik indarrez atera, begiak estaltzen dizkigute. Oinez ibilarazten gaituzte, luze, oso luze, ordutan eta ordutan, itzuli handi bat eginarazten digute, begiak tapatuta. Hori guztia egiten dute, galderak egiten hasi baino lehen, gu nekatzeko, xehatzeko.

Martiri izateak badu ohore bat ere bere baitan. Baina zer da martiri baten aita izatea?

AITA: Nik ez dut nire semea gehiago ikusten, ez dut nire semearen ahotsik entzuten, ez dut gehiago sentitzen, nire bizitza emango nuke bera hemen bizirik egotearren, nire arnasa bereagatik trukatzeko prest nengoke. Baina hil denez gero, gogoan gordeko dudana da nire semea beti izan zela ausarta etsaiaren aurrean, ez zen kikiltzen, eta nire semea duintasun osoz hil da bere herrian bakea lortzeko.

Eta zer da martiri baten ama izatea?

AMA: Ez dakit hitzak nola josi, zaila zait oso hitz egitea... Alde batetik, beldur naiz, oraindik ere beste bost haur ditudalako,

eta begira haur txiki hauek zer ikusi duten, zer nahi duzu hantzen direnean egin dezaten? Baina beste aldetik esango dizut ez dudala ezeren damurik, eta ondorengo seme alabetan ere hiru edo lau hiltzen badizkirate, ez dut damurik izango, hau delako gure borroka, eta hau delako gure bizitza. Baina galdera hauek denek, eta esaten duzun guztiak, ez dakit zertarako balio duten. Hona asko eta asko etorri dira argazkiak ateratzera, baina gero ez dugu inongo babesik izan. Inongo munduko herrik ez digu lagundu eta are gutxiago herri arabiarrek. Ez dakit honek guztiak zertarako balio duen azkenean.

Munduak ahaztuak sentitzen zarete?

AMA: Jakina, inork ez du ezer sentitzen palestinarrengatik. Etxera etorri eta gure semeak eramaten dituzte, zauritu egiten dituzte, hil, gure etxeak txikitzen dituzte, gu etxetik atxilotuta eramaten gaituzte, eta zer? Inork ez du ezer sentitzen gugatik.

AITA: Israelek dituen bitarteko guztiak eduki, eta mundu guztia dago Israelen alde. Berak ditu arma guztiak, guk ez dugu ezer ere, edo agian arma txiki bat karro handi baten kontra borrokatzeko, eta hala ere inor ez dago gure alde.

AMA: Baina guk, gure izpirituz borrokatzen dugu Israelen aurka, izpirituz eta buruz.

AITA: Eta bakearen hazia, guk, gure bihotzaren barruan ereina dugu. Hor loratuko da, ez dakidana da kanpoan bere fruituak ikustera iritsiko garen.

— *Hi habibi* —Aminek goxo.—

—*Hi Amine*, zer moduz zaude?

—Oso ongi, eta zu?

—Ni ezin hobeto. Zer moduz daude zure lagunak? —soldadu buruaren jakin mina.—

—Nirekin dauden bitartean ongi egongo dira —jakina—.

—Pozten naiz jakiteaz.

—Hil egin nahi nauzu? —Aminen hitzek ez zuten dardararik egiten—.

—Ez, zergatik diozu hori?

—Behin esan zenidan zakur guztiei iristen zaiela beren ordua —Aminek zorroztu du hitza.

—Gogoratzen naiz —militar buruak—.

—Ba zu ere zakur bat zara, eta iritsiko zaizu zure ordua.

—Kar kar kar kar. Estimaten dizut, zuk nahi duzunean *habibi*. Kar kar kar kar —fusilaren hots bera du militarren barreak—.

—Ongi segi *habibi*!

—Laster arte.

Telefonoa eseki eta handik astebete baino gutxiagora iritsi zen zakurren ordua. Usmatzera joan ziren, bala zuloz zabaldutako etxe hartan, haragia gordinik ote zegoen. Zaunka egin zuten. Nabulus osoan entzun zen zaunka oihartzuna. Biharamun goizean Israelgo egunkari bat baino gehiago esnatu zen “Zisjordaniako terroristarik handiena hil da” esanez. Eta Tel Aviveko estatuetan kafeak sosegan ketuko ziren airean, eta autobus gidariak txistu joaz pasako zuten goiza. Nabuluseko alde zaharrean, pendulugilea berandu iritsi zen lanera, beti bezala lo hartu zuelako. ■



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 • Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 • Hernani • Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

«Ez begiratu nortasun

William Chapple

Amerikarrek ilargira egiten dituzten bidaia guztiak dira sinestezinak. Eta guk judu baten semea aurkitu genuen ilargi gorrian, kaliforniar bat, boluntario. Abenturaren erakarpen indarra. Argazkia testigu. 2005ean joan zen lehen aldiz, eta ia akabatu zuen aitak, palestinarrei laguntzera joatearren. Oraingoan, ez die ezertxo ere esan gurasoei, eta epostak idazten dizkie, eta deitu tarteka, “Kaliforniatik”. Baina beste zerbait asmatu beharko du Gazara, Irakera, edo Darfurrera joaten bada. Hala nahi du berak.

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



ZERGATIK ITZULI zinen Nabulusera?

Lan egina naiz Jeninen eta Hebronen ere, baina Nabulus da Zisjordania osoan egoerarik okerrenean dagoen herria; Nabulus da hiri bakarra sarbide guztiak *check point*ez itxiak dituen, gauero sartzen dira militarrek, tiroketak gauero entzuten dira, eta milizia asko daude. Horregatik denagatik maite dut hainbeste.

Nola begiraten dizute palestinarek amerikarra zarela esatean?

Batzuri, “oooooooouuu” esan, eta begiak erortzen zaizkie. Beste batzuk berriz, “uaauuu, mila esker hona etortzeagatik –esaten didate–, badakit jende guztia ez dela gobernua bezalakoa”.

Sei hilabeteren ostean erabat integratuta zaude?

Tira, ni beti izango naiz atzerritarra, are gehiago oraindik arabieraz ez baitakit. Baina dagoeneko, hemen ohitura den moduan, ibil ninteke besotik helduta mutiko batekin. Edo mutiko bati musu eman masailean, edo kopetan. Amerikan horrela ikusi eta homosexuala naizela pentsatuko lukete.

Eta zer esaten dute soldadu israeldarrek anbulantziaren barruan boluntario amerikar bat ikusten dutenean?

Lehenik galdetzen didate, “musulmana al zara?”, gero, “zergatik egon nahi duzu hemen?”, eta azkenik, “badakizu hau oso leku arriskutsua dela ezta?”, baina erantzun erraza du horrek, “barkatu,

baina hau berdina da arriskutsua armada inbadi-tzailearentzat ere, zu soldadu bezala ez zarela ongi etorria hemen. Ni, mediku bezala, ongi hartzen naute, eta ez naiz inoiz arriskuan sentitu”.

Soldadu israeldarrek anbulantziaren lana oztopen-tzen saiatzen dira?

Orain dela gutxi gertatutakoa dut buruan. Gizon zahar bat zegoen biriketako edemak jota oso larri, eta segidan sartu behar zitzaion oxigenoa eta odola. Jaso genuen anbulantzia eta ospitaleko bidean gindoazela bi militarren jeep agertu ziren, eta medikamentuak kendu zizkiguten. Anbulantziako langileak ere, profesionalak, animaliak balira bezala tratatu zituzten, pistolekin eta armekin mehatxatuz. Dena arakatzen hasi ziren, bonba baten bila edo, gizon zaharra ospitalea zartatu nahi zuen kamikazea zela zirudien. Oxigeno maskara kendu zioten eta gau hotzean anbulantziatik atera zuten. “Barkatu –soldaduengana zuzendu nintzen–, gizon honek oxigenoa behar du, hartu al nezake oxigeno maskara?”, eta beraiek “ez, ezin duzu”. “Benetan ari al zara? Ezin naiz gizon horri oxigenoa ematera joan?” eta hura berean, “ez, ezin duzu joan”. Pentsatu nuen, eta damu naiz ez niela aurpegira esan: “baina zuk nola lo egin zenezake gauean? Gizon hau oso gaixo dago, zaharra da, eta ez da zuek bila ari zaretena”. Azkenean salbatu zen gizona, ez zen hil, baina gau hartan soldaduek egin zutena gerra krimena da, bortxaketa, lotsagarria. ■

...u lan egun dituen palestinarra

ari, lagundu edonori»




PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Adnan Al-Sousou

1969a zen, Adnan, artean mutiko, Gazatik Zisjordaniara aldatu zenean bizitzera. Handik laster hil zen aita, eta Adnan, etxeko langile bakar, hamar pertsonaren kargu utzi zuen. “Zuek ikasi –agindu zien–, nik egingo dut lana”. Eta gau osoa anbulantzian pasa ondoren, oraindik ere goiza eta arratsaldea taxia gidatzen pasatzen ditu alabaren unibertsitateko ikasketak ordaintzeko. Hogei orduko lan eguna du, eta hilabeteko oporrak hartzean Tel Avivera joaten da sukaldari lan egitera, “han gehiago irabazten da; hemen oso gutxi. *This is a fucking life*”, baina horrekin bat “*I love this job*” esango dizu. Eta larrialdi batetik bueltan, loari minutu batzuk lapurtzera joan beharrean, aulki batean eseri da gure galderak erantzutera.

ZER SENTITZEN da larrialdi batetik bueltan, norbaiti lagundu berrian zatozenean?

Oso zoriontsu naiz, norbaitek laguntza behar zuen eta lagundu egin diogu. Batzutan gertatzen zaigu hiltzeaz dauden zaurituak artatzea, eta agian bizirik ateratzen dugu. Handik urte batera edo bira, kalean ikusten badut berriez, konturatzen naiz lagun bat irabazi dudala.

Lagun asko dituzu?

Bai, jende askok esan dit kalean, “kaixo, zer moduz Adnan? Ongi?” eta nik; “ez naiz oroitzen zutaz, nor zara?”, “orain dela urtebete etorri zinen nire etxera, gauean, laguntzera, larrialdi bat zen, tiroketa baten ostean...”. Eta horrela asko etortzen zaizkit kalean eskerrak ematera. Baina ez zait gustatzen inork eskerrak ematea nik lagundu izanagatik.

Zergatik?

Hau nire lana baita, eta ez dut beste norbaitek eskerrak eman beharrik.

Salbatutakoa lagun bihurtzen da. Gertatu zaizu lagunik salbatu beharra?

Izango dira bost bat urte. Leherketa bat gertatu zen, eta anbulantziarekin hurbildu ginenean sua ikusi genuen, baina sua azkeneko brasatan zegoen. Sei pertsona ikusi nituen erdi-erdian, erretea zeuden. Banan-banan hartu eta seiak anbulantziaren atzealdean sartu genituen ospi-

talera eramateko. Hilda zeuden ordurako. Eta horiek ospitalean utzi eta anbulantziako postura itzuli ginenean lagun baten senitartekoei deitu zidaten: “aizu Adnan, ikusi al duzu Amine?”. Eta nik baietz, jakina, “orain dela ordubete egon da nirekin tea hartzen, hizketan egon gara”. “Ez, ez, baina erre egin da, bera eta bere lagunak erre egin dira, ez dituzu ikusi?”. Orduan erori nintzen. Ospitalera itzuli nintzen, hozkailuan begiratu, eta bera zen, ordubete lehenago nirekin tea edaten egona zena. Gorputzak hain zeuden kiskaliak ez nuela ezagutu ere egin laguna.

Inoiz gertatu zaizu israeldar soldaduak hartzea anbulantzian?

Noski baietz! Behin, soldaduak palestinarren aurka borrokan ari ziren, eta israeldar bati lagundu genion. Auto istripuak izaten badituzte ere berdin, joaten naiz, ikusten dut israeldar soldaduak direla eta lagundu egiten diet. Soldadu batzuk sinistu ezinda egoten dira ikusirik arabiar bat ari dela beraiei laguntzen.

Zer esaten dizute?

Beste soldaduak etortzen dira niregana eta “eskerrik asko” esaten didate. Nik edonori laguntzen diot, berdin zait kristaua, musulmana, judua, edo zer den. Laguntza behar duenari eman egiten diot. Horixe ikasi nuen nik: “ez begiratu nortasunari, lagundu edonori”. ■

Olibondoen Menditik Palestina ikusten da

Olibondoen Mendian, mendia, bakarrik, eta letra txikiz idatzia geldituko da. Ez da olibondo berririk hazten harrien artean. Eta zaharrak, hiru mila zirkuluko jakintzaren bidea egina zutenak enborretan, ingelesek ebaki eta eraman zituzten lehen mundu gerla eta gero. Olio a isuri zuten zaurietatik. Eta makina bat ibili zen olio harekin: trena. Makina bat tren. Bagoi batzuetan juduak garraiatuko zituzten agian, Europatik ihesi zihoazen juduak. *Destination:* Israel. Eta eraiki zituzten etxeak, auzoak, eta herriak; lehen olioeko errekek jaisten ziren lurretan. Eta orain apenas bizi den olibondorik mendian.

HIRI HANDI ASKOK DUTE ondoan mendixka bat zaindari. Parisek Monmartre du, La Pazek El Alto, eta Donostiak Igeldo. Olibondoen Menditik Jerusalem garbi-garbi ikusten da, batez ere hiri zaharra, erlijio monoteisten zilborra. Eskua luzatu eta hatz potoloaz hunki liteke Al Aqsako meskita, hatz erakusleaz Kalbarioko gurutzegaina, eta hatz nagiaz juduen pareta sakratua. Nahi duenak sar dezake hatz txikia Ariel Sharonen etxeko leiho batetik. Onena, erdikoa, ez erabiltzea. Baina horixe da dena eskueran izatea. Eta zaindari on batek halaxe behar du, bista ona, eta eskura dena. Zerbait ez dabil ongi hala ere munduan, eta hirian, zaindaria bera ere beldurrak bizi bada.

Batzuk Ameriketara alde egin zuten, bestek Zisjordanian gora, Libanora dezentek, eta gehienek Jordaniara. Izango ziren hemeretzi mende lehenago Jesus zenak bezala, beste inora ezin eta zerura egin zuten palestinarrak, baina kostako zitzairen han asilo politikoa jasotzen. 1948a zen, eta oso egun gutxitan aldatu zen mundua zaindariaren begien aurrean. Israel izeneko bat eseri zen olibondoen gainean.

Duela laurogei urte berrogei gizon bizi ziren Olibondoen Mendian. Berrogei hiri zaindari. Mohammed profetak esana utzi baitzuen Jerusalem inguruko herrixketako biztanleak hiri santuaren zaindari egiten zituela. Eta hala ziren Bethaniakoak, Abu Disekoak, eta beste guztien gainetik Olibondoen Mendikoak. Berrogei gizon. Bakean bizi ziren, eta bakea bizi zuten promenatzen zirenak juduekin ere. Arropak saltzen zizkieten, edo beste zerbait, eta palestinarrak, zergatik ez, konforme traturako. Berrogei gizon esaten zen, baina kontuetan agertu ez arren baziren berrogei emazte, eta berrogei familia. Familian mutiko bat jaiotzen zenean gizon nagusia hil egiten zen, eta izenik gabeko izanera kondenatzen zen betiko. Baina laster, gizona itzalararekin haserretu, eta mutikoak jaiotzen hasi ziren baina gizonik hil gabe, eta biz-

tanleriaren kontua hasi zen gora eta gora, 1967ra 8.000 biztanlerekin iritsi arte. Urte hartan, Israel izenekoak sartu zituen hatzaparrak lehen iritsi gabeko lurretara, eta sei egunean, gizonak hil ziren, eta haurrik ez zen jaio. Eta Olibondoen Mendiari gogora etorri zitzaizkion aspaldi-aspaldian Jerusalem etorkizunaz odolezko malkotan urrikaldu zen Jesus izeneko baten hitzak: “lur honetan, ez da bakerik izango sekula”.

Zergatik ez ote da bakerik izango?

La Pazeko zaindari postuak ez du inbidia arazo handirik sortuko, Parisekoak behar bada bai, Jerusalemekoak seguru. Hiri santuko lurra denena izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak, baina agian hobe zuketen Nazio Batzuen Erakundeak izendatu balute, eta lurra, berriz, denena behar inorena ez dela esan izan balute. Beti ateratzen baita besteak baino abilago den bat bera dena dela uste duena. Eta sionismoak Jerusalem erdiguneaz ez ezik, ekialdeaz ere jabetu nahi du,

Olibondoen
Mendia, maldan
gora juduen
hilerria ikusten
dela.

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



eta Jerusalem ekialdeko herrixketaz, horien artean olibondorik gabeko mendiaz. Eta telebistan koheteak agertu arren, Palestina eta Israelen arteko benetako gatazka askoz ere isilagoa da. Lurraren borroka da. Lur lapurreta esango diote palestinarrek, lur banaketa israeldarrek. Eta israeldar horiek sionistak badira, azkar bururatu-ko zaie lurra nola banatu erdi eta erdi: “guretzat lur gaina, eta zuek lur azpira. Konforme?”

Ez. Olibondoen Mendian lur azpia ere judue-
na da, hilerri luze zabal batek okupatzen baitu
pendiz behera osoa. Eta han, jakina, ezin da
etxerik eraiki. Sakrilegio handi bat litzateke hil-
dakoen gainean eraikitzea bizitza. Baina ezin da
ez han eta ez beste inon. Abu el-Hawa familiare-
nak dira Olibondoen Mendian Jordan ibarrera
begira dauden lur lehor emankorrek. Baina oli-
bondorik ez da hazten, eta etxerik hazteko bai-
menik ez diete ematen israeldarrek. Bien bitar-
tean, baimenik gabe egiten dute kolonoek
kanpamendua inguruetan. Baimenik gabe eta
besteen lurretan. Hala ari dira oraindik orain
Abu Disen, Bethanian, Silwanen, eta ia gain
guzietan. Lehen urtean aurrefabrikatu batzuk
jarri, bigarrenean etxetoak, eta hirugarrenarako
eraikuntza tantaia. Eta orduan ez da galdetu
beharrak izango lur hori norena den. Jakin min
txiki bategatik norbere bizitza arriskuan jartzea
absurdua litzateke. Hobe da laborariek egiten
duten bezala, belar txarrak madarikatzen ibili
barrean, isildu, eta bidaliko dituzten eguna iri-
tsi arte, kartetan jolastera joan.



Goiko irudian,
dagoeneko
eraikita dagoen
pareta ikus
daiteke.

Dolar fardoak bueltaka

Olibondoen Mendi gai-
nean ez da lurrik geldit-
zen, eta kolonoek ezin
dezakete munduko
talaiairik onenean etxebi-
zitza dotorerik eraiki.
Palestinarrak bizi dira,
arbasoengandik jasotako
etxeetan. Eta hara misi-
lak botatzerik ez dago,
Moisesek ere ikusiko
luke txikizioa, eta Hai-
tzaren Domoak Maho-
mari deituko lioke atzera
lurrera jaitsi dadin. Hor-
taz, sionistek ezin dute

Olibondoen Mendira igo. Ezta palestinar askok
handik inguruko herrixketara jaitsi ere. Israel
eraikitzen ari den paretak bere magaleko herrix-
ketatik bereizita utzi duelako mendia. Eta horma
erraldoiarekin, lurra konfiskatzeaz gainera, Jeri-
choko bidea itxia gelditu zaie palestinarrei. Bista
bakarrik dago libre. Eta horrek ere, lurretik hasi-
ta sei metro galdu ditu.

Baina sei metro horiek bost axola Israeli.
Israelek nahi duena juduek Olibondoen Mendi
gaina ere hartzea da. Eta lurrik ez egon. Baina
satorrak beti aurkitzen baitu bide bat, konpainia
eta agentzia berri batzuk agertu dira, eta Olibon-
doen Mendiko etxeetan arabiar edo kristau
batzuk jo dute atea: “aizu, etxe hau erosi nahi
dut. Nire anaiarentzat da. Hiri zaharraren gaine-
ra etorri nahi du bizitzera, goizero, leihoak ireki
eta Al Aqsako meskita ikusteko.” Palestinarrak,
itxura txarra hartu ez badio “eta zenbat ordain-
tzeko prest zaude?” galdetuko dio. Eta galdera
ikurra bihurritu eta dolar ikurra errestatuko dio
erostunak, eta zero asko, asko, asko, milioiak eta
milioiak, bista pixka bat duena ere itsutzeko bes-
tekoa. Baina izar txiki bat dago hitzezko kontra-





PHOTO © TXOMIN TXUEKA



PHOTO © TXOMIN TXUEKA



tuan ezkutatua: delako bere anaia hori ez dela bere abizen berekoa, eta Ameriketara bizi dela, edo Europan, eta bai, jakina, judua dela. Eta bere konpainia milioi askoko batek ordainduta bitartekari bat baino ez dela. Dirua, juduen tzat, ez baita sekula arazo izan.

“Badakizu zenbat diru eskaini zidaten nire pisuaren truke?” galdetu zidan Olibondoen Mendiko taxi gidari gazteak. “Zenbat?” nire jakin mina. “70 milioi dolar. Berriz esango dizut, hirurogeita hamar milioi dolar”. Txistua-rekin batera, sustoa, harridura, eta hori entzundakoan gure burura etortzen den lehen galdera tragatu behar izan nituen. Ez, ez, hark ez zuen saltzerik pentsatzen, ezagun zuen kontatzeko eran. “Aberastuko zinen ederkil!” alde egin zidan azkenean gure baloreen eskalak, eta azkar utzi ninduen hankaz gora nire eskala eta guzi: “lasai, gu aberatsak gara, baina dirurik gabe”.

Zergatik ari dira mutikoak harrika?

Galdetu nion taxi gidariari iluntze batean. “Ikusten duzu horko etxe hori? –hatzez seinaltatu zigun Olibondoen Mendiko etxe bat– Ba etxe hori juduek erosi zuten orain dela bi hilabete”. Dena arantza alantzen josita zeukan ingurua. “Bi judu familiak erosi zioten musulman bati, eta orain hor bizi dira, auskalo zenbat ordainduta, eta auskalo nondik etorrita”. “Eta musulmana hemen bizi da oraindik?” “ez, hil egin zuten, etxea saldu eta segidan hil zuten tiroz, Jerichon”. “Palestinarrek?” galdetu nion. “Ez daki inork. Zurrumurru bat dabil erostunek dirua ematerakoan hil zutela dioena. Baina inork ez daki inork”. Denek dakitena da juduak bizi direla orain Olibondoen Mendiko etxe horretan. Eta etxe bat duenak auzoa du amets, eta auzoa duenak herri osoa.

Berrogei egun pasa dira hilketa harez gero, eta oroimenez kontainer bat gurutzatu eta su eman diote gazte palestinarrek. Soldaduak azaldu dira gauean, eta tiroak entzun dira alde bate-tik. Harri hotsa entzun da beste aldetik. Eta tiro gehiago bestetik. Gaueko ordu txikiak arte iraun du borrokak. Telebistek, bihar goizean, izango dute zer kontatua. Esplikatu ere egin gabe zergatik. ■

Ali Abu el-Hawa – Olibondoen Mendiko Moqtadra

«Naziek juduak baino okerrago tratatzen gaituzte juduek gu»

Ali Abu el-Hawa 1938ko apirilaren 24an jaio zen, Olibondoen Mendian. Abu el-Hawa familia Olibondoen Mendiko familiarik handiena da, eta senide guztiak elkartuta Ali aukeratu zuten Moqtadr izateko, musulmanentzat herriko gidari. Behin izendatuta, hil arte izaten da pertsona bat Moqtadr. Olibondoen mendian lau Moqtadr daude, eta lau horietan handiena da Ali.

Olibondoen Mendiak familia bat badu, hori Abu el-Hawa familia da. Orain dela zenbat belaunaldi iritsi zineten hona?

Ez dakit, agian orain dela hiru-rehun, laurehun, edo bos-tehun urte. Ziur badakit duela sei belaunaldi, eta agian zazpi ere bai, hemen ginela, baina aurrekoen berririk ez dut. Orduan jendea analfabetoa zen, eskolarik gabea, eta ez zuten beraien historia idatzi.

Baina duela bi belaunalditik hona errotik aldatu da egoera. Nolakoa zen Olibondoen Mendian bizitza hamar urte baino gutxiago zenituenen?

Denak arabiarrek ginen, baina askotan ikusten genituen juduak, hona, hilerrira etortzen, eta bake osoan bizi ginen elkarren artean. Eta juduak, Europatik ihesi herrialde arabiarretara etorri zirenean, oso ondo hartu genituen, arabiarrek babestu zituzten. Baina 1948an dena aldatu zen. Sionismoa etorri zen, poliziak, eta ordutik, sufritzen ari gara. Bakean bizi ginenak abailduta utzi gintuzten.

Hemendik palestinar askok alde egin zuen kanpora?

Ez hainbestek, baina familia batzuek bai. Batzutan, alderantziz izan zen, Jaffatik, Haifatik, okupatutako Palestinatik, jendea hona etortzen hasi zen, Jerusalemara. Baina izugarrikeriak entzuten ziren, Jerusalem mendebaldean juduak jendea hiltzen ari zirela eta horrelakoak. Hori entzutean jendea, beldurtuta, kanpora joaten hasi zen, Jordaniara batez ere, eta beste lekuetara ere bai.

Ez duzue inoiz pentsatu hemendik alde egiterik?

Olibondoen menditik joatea? Ez, sekula ere ez.

Ezta 100 milioi dolar eskainita ere?

Ezta Etxe Zuria ematen baldin badidate ere. Hau gure lurra da eta ez dugu inoiz utziko.

PHOTO © TXOMIN TXUEKA



Baina ez duzu beldurrik israeldarrek etorri eta hemendik botako zaituztetenik?

Badakizu, hemen edozer gauza espero zenezake. Al Aqsako meskita sartu ginenean ere, agian, gu han geunden bitartean meskita suntsituko zutela pentsatzen genuen, baina ez ginen beldurtu. Edozer gauza gerta daiteke, baina nik hirurogeita hamar urte ditut, eta ez dut beldurrik, hemen jaio nintzen, hemen hazi nintzen, eta hemen emango didate lur.

Hau da Jerusalemgo hiri zaharreko talaia, hemendik begira ikusten dira leku sakratu guztiak, juduen pareta, Jesus gurutziltzatu zuten gaina, Mahoma zerura igo zen lekua... Horra begira jarri eta hobeto ulertzen da gatazka?

Begira, Jerusalem hiri sakratua da hiru erlijioentzat, islamarentzat, judaismoarentzat, eta kristautasunarentzat. Baina hori ez da gatazkarako arrazoi bat. Juduak, musulmanak, eta kristauak, bizi daitezke elkarrekin, bakoitzak bere legeak oinarri hartuz eta elkar errespetatuz. Baina zuk hemen etxe bat baldin baduzu, eta judu bat etortzen bada kanpotik, New Yorketik, edo Frantziatik, eta zu botatzen baldin bazaitu bera hor bizitzeko, orduan ez da posible bakerik. Eta guk bakean bizi nahi dugu.

Baina jende askori galdetu eta jaso dugun erantzuna izan da: "bakea? Hitz hori ez dago gure hiztegian", edo "bakea? Ez da posible, gehiegi ari gara sufritzen". Zergatik sufritu behar du hainbeste palestinarrek?

Bigarren Mundu Gerra izan zen Europan, eta orduan juduek asko sufritu zuten. Ordukoagatik mendekua hartzen ari dira, baina ez dira alemaniarren aurka mendekatzen, edo Hitlerren jarraitzaileen aurka, mendekua arabiarren aurka ari dira hartzen. Eta naziek beraiek tratatu zituzten baino okerrago tratatzen dituzte arabiarrek, gogorrago. Horregatik ari gara gu sufritzen, orduko minaren prezioa guri ordainarazi nahi digutelako. ■